

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

C1, C2 eta E (C, D eta E) aldeetako lanpostuak betetzeko sustapenaren eta enplegu-eskaintza publikoaren deialdia onestea

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an egindako ohiko bilkuran onetsi egin zuen Gasteizko Udaleko C1, C2 eta E (C, D eta E) taldeetako lanpostuak betetzeko sustapen eta enplegu-eskaintza publikorako deialdia.

Gasteizko Udalak, agintaldi honetarako ezarritako helburuen barruan, 2018ko aurrekontu legeak baimendutako sustapen eta enplegu eskaintza publikora deitzea proposatzen du lanpostuak betetzeko, horrek bide emango baitu, batetik, udal egitura sendotzeko, eta bestetik, udalaren zerbitzura dauden langileen administrazio karrera sustatzeko.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak honela dio enplegu-eskaintza publikoaz 70. artikuluan: "Giza baliabideen beharrianak daudenean, eta, horretarako aurrekontuko diru-izendapena egonda, langile berriak sartzeko beharrezko denean, enplegu publikoaren eskaintza egin behar da, edo langile-beharrianak betetzeko antzeko beste kudeaketa-tresnaren bat erabili behar da; horretarako, beharrezkoa izango da sortutako plaza horiek (eta, gehienez, ehuneko hamarreko kopuru gehigarria) betetzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egitea eta deialdia egiteko gehieneko epea ere finkatzea. Nolanahi den ere, enplegu publikoaren eskaintza edo erabiltzen den antzeko tresna hori betetzeko, hiru urteko epea izango da gehienez ere, eta epe hori ezingo da inola ere luzatu."

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 16. artikulua — apirilaren 13ko 7/2007 Legea — xedatzen duenez, karrerako funtzionarioek lanbide-sustapena izateko eskubidea dute, besteak beste c) eskubidea: "barne-sustapen bertikala; horren bidez, kidego batetik edo lanbide-sailkapeneko azpitaldeko eskala batetik (edo talde batekotik, baldin eta azpitalderik ez badu) goragoko beste batera igo daiteke, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera".

Barne-sustapena hautaketa-prozesuen bitartez egingo da, betiere, berdintasun-, merezi-mendu-, eta gaitasun-printzipio konstituzionalak eta estatutu horretako 55.2 artikuluan ezarritakoak beteko direla bermatuta.

Bestetik, hauxe xedatzen du 6/1989 Legeak 23. artikuluan:

1. "Administrazio publikoetako langileekin bete ezin diren giza baliabideak, aurrekontu-izendapena dutenak, lan eskaintza publikoaren bidez beteko dira.

2. Enplegu publikorako eskaintzan, hutsik dauden plazak adieraziko dira, bai funtzionarioenak eta bai lan-kontratuko langile finkoenak ere. Plazok funtzionarioen lan-kategorien arabera edo talde, kide eta eskalaren arabera sailkatuko dira. Plaza horiek sartzeko ez dakar berekin funtzionario direnen artean lanpostu horietarako lehiaketa egin beharra aldeztirik.

3. Ezin da enplegu eskaintza publikoan sartuta ez dauden plazetarako hautatze-probarik deitu."

Bestalde, aipatutako Legean jasota dagoenez, funtzionarioek administrazio-karrerarako eta barne-sustapenerako eskubidea izango dute, eta 55. artikuluan eta ondorengoetan arautzen

duenez, funtzionarioak beren taldeko beste kidego edo eskala batzuetara edo horren gain-gaineko taldekoetara sartzeko eskubidea izango dute, barne sustapenaren bidez.

Azkenik, deialdien argitalpenei dagokienez, deialdiak eta oinarriak BOEn argitaratuko dira, Estatuko Administrazio orokorrean sartzeko eta lanpostuak hornitu eta lanbide sustapenerako erregelamendu orokorra onartzen duen martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak 15. artikuluan xedatzen duenari jarraiki.

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 24. artikulua xedatzen duenez, lan eskaintza publikorako eskaintzak EHAAn argitaratuko dira, baina Foru Aldundi edo Udal Batzarrenak badira, Lurralde Historikoko aldizkarian. Azken kasu honetan, EHAAn ere argitaratu beharko da eskaintzen laburpen bat.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 30ean

Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkaria

JAIONE AGUIRRE LÓPEZ DE ARAYA

GOBERNU BATZARRAREN ERANSKINA: C/D/E LANPOSTUEN ESKAINTZAREN ONESPENA

Taldea	Lanpostuaren kodea	Lanpostuaren izena	LH	GUZTIRA	BARNE SUSTAPENA	DESGAITASUNA	IREKIA
C	1112	KLARINETE-JOTZAILEA	LHGABE	1			1
	1133	SAXOFOI-JOTZAILEA	LHGABE	1			1
	1148	TRONPETA-JOTZAILEA	BLH	1			1
	1444	OPERADORE PROGRAMATZAILEA	LHGABE	1			1
	1456	OBRA-IKUSKATZAILEA	BLH	1	1		
			LHGABE	1			
	1481	LANTEGIKO ARDURADUNA	LHGABE	1	1		
	1494	INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNIKARI ESPEZIALISTA	LHGABE	1	1		
	1500	ARTE ESZENIKOETAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	LHGABE	1			1
	1501	KAPATAZA	LHGABE	3	3		
	1602	MANTENTZE TEKNIKARI ESPEZIALISTA	LHGABE	4	4		
	2005	ADMINISTRARIA	BLH	28	9	5	14
			LHGABE	13	4	2	7
	7012	DELINEATZAILE / LAGUNTZAILE TEKNIKOA	BLH	1			1
			LHGABE	2	1	1	1
	7013	DELINEATZAILE PROIEKTUGILEA	LHGABE	3	1	1	1
	7023	INFORMAZIOAREN KUDEAKETAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	LHGABE	1			1
7024	LANDAREEN INBENTARIOKO TEKNIKARIA	LHGABE	1			1	
950	KOMUNIKAZIOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	LHGABE	1			1	
Guztira C				66	25	9	32
D	1717	MANTENTZE LANETARAKO OFIZIALA	LHGABE	29	10	0	19
	1720	ARGIBIDE ETA KONTROL AGENTEA	BLH	9	3	2	4
	1722	MANTENTZE LANETARAKO OFIZIAL ESPEZIALISTA	LHGABE	26	9	0	17
	1731	LANERAKO PRESTAKUNTZARAKO IRAKASLEA (ITURGINTZA)	LHGABE	1			1
	1820	APARKALEKU JAGOLEAK	BLH	5	1	1	3
			LHGABE	1	1		
	1904	GARBITZAILEA 1	BLH	15	10		5
			LHGABE	6	6		
	3001	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	BLH	3	2		1
			LHGABE	3	2		1
601	PARKE ETA LORATEGIEN TALDEKO BURUA	LHGABE	2	2			
7018	ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIEN TEKNIKARIA	BLH	16	2	2	12	
		LHGABE	15	2	1	12	
702	GARBIKETA TALDEEN KOORDINATZAILEA	LHGABE	1	1			
Guztira D				132	51	6	75
E	1815	GARBITU, JOSI ETA LISATZEKO LAGUNTZAILEA	LHGABE	3			3
	1825	LANBIDE-LAGUNTZAILEA	LHGABE	7			7
	1906	GARBITZAILEA 2	LHGABE	44		4	40
	1907	GARBITZAILE-ZERBITZARIA	LHGABE	18			18
	1909	SUKALDE-LAGUNTZAILEA	LHGABE	5			5
Guztira E				77	0	4	73
Guztira, oro har				275	76	19	180
					% 27,64	% 6,91	% 65,45